

Bilera-akta
HABEko Zuzendaritza Batzordea

Eguna: 2012-04-19, osteguna **Hasiera-ordua:** 10:10 **Bukaera-ordua:** 11:35

Bertaratuak

Blanca Urgell Lázaro and., Kultura sailburua
Lurdes Auzmendi Ayerbe and., Hizkuntza Politikarako sailburuordea
Ivan Igartua Ugarte jn., HPSko Koordinaziorako zuzendaria
Iñaki Uribe Burgoa jn., HABEko zuzendari nagusia
Encar Echazarra Huguet and., HAEE-IVAPeko zuzendaria
Miren Dobaran Urrutia and., Bizkaiko Foru Aldundiko Euskara Sustatzeko zuzendari nagusia
Andres Iñigo Ariztegi jn., Euskaltzaindiko ordezkaria
Esther Isasa Gaskue and., HABEko Didaktika Zerbitzuko ordezkaria
Maite Euba Areitio Aurtena and., Araba eta Bizkaiko udal euskaltegietako irakasleen ordezkaria
Mirenbe Korta and., Gipuzkoako udal euskaltegietako irakasleen ordezkaria
Koldo Iturbe jn., Getxoko kultur zinegotzia, EUDELeke ordezkaria

Bertaratu ezina adierazi dutenak

Patxi Martinez de Marigorta Guzman jn., HPSko Herri Administrazioetan Euskara Normalizatzeko zuzendaria
Iciar Lamarain Cenitagoya and., Abako Foru Aldundiko ordezkaria
Zigor Etxeburua Urbizu jn., Gipuzkoako Foru Ald.ko Euskararen Normalizaziorako zuzendari nagusia

Aztergaiak

1. Blanca Urgell Lázaro Kultura sailburuaren agurra.
2. Zuzendaritza Batzordeko kide berriaren aurkezpena (Iciar Lamarain).
3. 2011-09-19ko bilera-akta onartzea.
4. Helduen Euskalduntzerako Oinarrizko Curriculumaren arabeko mailak egiaztatzekeo deialdiak arautzen dituen ebazpen berria.
5. Maila gainditzen duten ikasleen dirulaguntzak.
6. Aurrekontuak eta kudeaketa plana: 2012. urtea.
7. "Aurten Bai" koei Amorebieta-Etxanoko eraikina erabiltzeko kontratua luzatzea. Obra eta proposamenak.
8. Norberak leharkeena.

Esan-eginak eta erabakiak

1) Blanca Urgell Lázaro Kultura sailburuaren agurra

Eusko Jaurlaritzako Kultura sailburu Blanca Urgellek partaide guztiak agurtu ostean, V. Inkesta Soziolinguistikoa aipatu du esanez, inkestako datuen arabera, eskola dela euskaldunen sortzaile nagusi. Baina eskolarekin batera, euskaltegiak dira helduen artean euskalduntzearen eta alfabetatzearen funtsezko zutabea.

HABEren Plan Estrategikoa ere gogoan izan du eta argi azaldu du haren xedeetako bat dela ikasleak euskalduntze-sistemaren erdigunean jartzea eta euskaltegiei protagonismo handiago ematea; sailburuaren ustetan prozesu berriari zurruntasunik gabe eta itxaropenez aurre egin behar diogu.

Hitzetik hortzera dabilen krisiak ere eragiten dio HABEren jardunari, jakina, baina esan liteke 2012ko jardunari begira, eutsi egin zaiela hartutako konpromisoei, euskaltegiei zuzendutakoei batez ere.

2) Zuzendaritza Batzordeko kide berrien aurkezpena

Kide berria dugu Arabako Aldunditik, hain zuzen ere, Iciar Lamarain andrea; gaurkoan ez du etortzerik izan, baina hurrengoan espero dugu gurekin izatea. Gipuzkoako euskaltegi publikoen ordezkaria den Arantxa Ezeiza ezin izan da etorri eta Urretxu-Zumarragako euskaltegiko zuzendaria den Mirenbe Kortak ordeztu du. Bestalde, lehengo aldiz etorri da HABEko Zuzendaritza Batzordeko bilera batera EUDELEko ordezkari bat.

Halaber, Urgell sailburuak aipatu du 2 ordezkari berrituko direla Batzorde Akademikoan: Irungo udal euskaltegiko Jaione Camporen ordezkari, Urretxu-Zumarragako udal euskaltegiko Mirenbe Kortak; eta Aurten Bai-ko Marivi Zubiagaren ordezkari, Lazkaoko barnetegiko Marian Bidegain. Bi izendapenak onartu dira.

3) 2010-12-16ko bilera-akta onartzea

Bere horretan onartuta gelditu da aurreko bilerako akta.

4) Hizkuntza-mailak egiaztatzeko ebazpen berria

HABEko zuzendariak azaldu duenez, luze jo du ebazpen berria hezurmamitzeak, aldaketa dezente egin baitira. Kontua da mailak egiaztatzeko zegoen aurrekontuak deialdi baterako baino ez zuela ematen; eta horixe zen HABEren lehenengo asmoa. Baina euskaltegien eskaerari men eginez, bi deialdiei eustea erabaki zen, horretarako diru-gastuaren aldetik egin beharreko egokitzapenak eginez, besteak beste: lokalen errentako gastuak jaitziz eta bi trebetasun hartzaileak (irakurmena eta entzumena) euskaltegietan bertan eginez. Azken horren harira, esan beharra dago adituaren txosten batek ere (hain zuzen ere, euskara-egiaztagirien baliokidetzan jardundako aditu-taldearen bigarren txostena, "*Informe de seguimiento de la comisión de expertos sobre convalidación de titulaciones de euskara y adecuación al MCER*") gomendio horixe egiten zuela, alegia, egiaztapen-probetan trebetasun aktiboak soilik neurtzea (ikusirik proba horietan ez zela euskaltegietako emaitzen bestelako emaitzarik jasotzen). Euskaltegiek eginiko beste proposamen bat, eta HABEko zuzendaritzak onartutakoa, izan zen lehenengo deialdian proba idatzia gainditu dutenei bigarrenorako nota gordetzea (irizpide akademikoez gain, horrek dirua aurrezteko ekarriko baitu). Dirua aurrezteko beste neurri bat izan da udal-euskaltegietako aztertzaileek azterketak lanorduetan zuzentzea, halako eginkizunetarako ordu batzuk dauzkatela baliatuz. Aldaketa horiek jasoz, egin da ebazpen berria. Esan beharra dago interpretazio aldetik izan direla gorabehera batzuk, baina erantzun zaie zegokiena argituz. Dagoeneko itxita dago deialdia, guztira 10.300 ikasle matrikulatu direlarik.

Esther Isasak galdetu du ea kontrastatu den ebazpen berria indarrean dagoen Aginduekin, kontraesanik dagoen jakiteko; ebazpen berriak legelarien oniritzia duela esan du Uribek. Halaber, Estherrek adierazi du diru falta horren ondorio bat izan dela azterketak bi aztertzailearen artean zuzendu beharrean, lehenengo zuzenketa-sistemara jotzea berriro, alegia, aztertzaile bakarrak zuzentzea, tutorearen gainbegiratzearekin. Uribe jaunak adierazi du binako sistema hori askoz garestiagoa dela; iritzi berekoa da Encar Echazarra, berriek IVAPen binako sistema darabilten arren. Auzmendi sailburuordearen aburuz, lehenengo sistemak betetzen ditu kalitate-eskakizunak, bestela ez litzateke erabiliko. Blanca sailburuak

adierazi duenez, komeniko litzateke iazko deialdian HABEn binaka zuzendutako esperientzia pilotuko datuak banako sistemarekin kontrastatzea, zenbaterainoko aldea dagoen ikusteko.

Euskaltzaindiko Andres Iñigok adierazi duenez, Nafarroako hizkuntza-eskola ofizialetan bi aztertzailek zuzentzen dute azterketa bakoitza, eta egoki deritzo bide horri; halaber, adierazi du urteak daramatzatela ikasturte bakoitzeko 1. deialdian proba idatzia gainditu dutenei 2. deialdirako emaitza hori gordetzen, deialdi honetan HABEn estreinakoz egingo dena.

5) Ikasleentzako dirulaguntzak

Ikasleentzako dirulaguntza-sistemak horrela funtzionatu du: deialdia irailean egin ohi da, eta abenduan ebazpena atera; dirulaguntza horien onuradunak izan ohi dira aurreko urteko deialdiko bigarren azterketaldian eta urte bereko 1.ean maila gainditu dutenak.

Baina aurreko ezingo da maila gainditzen duten ikasleen artean dirulaguntzarik banatu. Horren arrazoia da, lehenago aipatu den bezala, aurrekontuak aurkezterakoan pentsatzen zela deialdi bakarra egitea, eta berori urrian. Horrela antolatuta, ez zuen astirik ematen dirulaguntzarik banatzeko 2012ko ekitaldiaren barruan; horrexegatik, hain justu ere, ez zen partidarik aurreikusi. Hurrengo aurrekontuei begira aztertu beharko da berriro gaia.

6) 2012ko aurrekontuak eta kudeaketa-plana

Jarraian, Lurdes Auzmendik 2012ko aurrekontuak aurkeztu ditu. HABEra 41.000.000 euro bideratuko ditu orotara Eusko Jaurlaritzak. Iaz 42.600.000 euro bideratu zituen, beraz, % 3,76ko beherakada egongo da. Sailburuordearen esanetan, koiuntura ekonomikoa eta Eusko Jaurlaritzak beste alor batzuetan egin behar izan dituen murrizketak kontuan izanda, esan daiteke, nolabait, iazko aurrekontuei eustea lortu dela. Ez dugu ahaztu behar aurtengo ikasturtean (datu osoak 2012ko irailera arte ez dira izango) nahiz datorrenean eskola-ordu gutxiago aurreikusten dela, ikastaroen trinkotasuna jaitsi egin delako ikasleek hala eskatuta. Diru horretatik 10.911.000 euro bideratuko dira euskaltegi publikoetara, iaz baino 1.039.000 euro gutxiago. Euskaltegi pribatuen aurrekontuetan, berriz, gorakada izan da: 20.730.000 euro jasoko dituzte, iaz baino 1.515.000 euro gehiago. Euskal Etxeen aurrekontua, azkenik, mantendu egin da. Kontuan izan behar da HABEn diru-sarrerek jaitziera izan dutela gurekin hitzarmena duten erakundeen aldetik: IVAP, Osakidetza, Justizia eta Hezkuntzak sailak...

Esther Isasak adierazi du materialgintza-alorrerako jarritako dirua nabarmen jaitzi dela; sailburuordeak erantzun dio aldaketa hori dela iazko aurrekontuan 200.000 euroko diru-partida bat pasatu zelako VI. kapitulutik A1 mailako ikasmateriala sortzeko. Bere aburuz, hemendik aurrera ahalegindu beharra daukagu Europako Elkarteko funtsetatik dirua lortzen, hain zuzen ere, *Erasmus for all* izeneko programaren baitatik, orain arte bezala beti HABEren kontura ibil beharrik izan gabe; norabide horretan eginak dituzte jadanik urrats batzuk Bruselan egindako bilera batean. Bestalde, A1 mailako eskuliburua datorren irailerako aurreikusten da argitaratuta egotea.

Aurrekontuekin lotuta, lehenaz gain beste 500.000 €-ko murrizketa izango ote den galdetuta, Urgell sailburuak adierazi du hor tartean kontu bat dagoela, hain zuzen ere, sail guztietatik diru bat atxiki dela prebentzio gisa, diru-sarrei dagozkien aurreikuspenak beteko ez balira koltxoi bezala izateko; dena den espero du euskaltegiekin-eta hartutako konpromisoak betetzeko moduan egotea. Halaber, aipatu da batzordekideek jaso duten informazioarekin ez daukatela ideia argirik egiterik nola bukatu zen aurreko ekitaldia eta nola dagoen aurtengoa, ezta ere, zenbait ataletako partida igo ala jaitsi diren jakiteko. Hutsune hori zuzentzeko, batzordekideei informazio zabalagoa emango zaiela adierazi du sailburuordeak.

Kudeaketa-planari dagokionez, HABEko zuzendariak azaldu du tresna egokia dela aurrekontuak zein egoeratan dauden, zein den betetze-maila zehaztasun handiz jakiteko; argazki ona eskaini eta segurtasuna ematen du. Hilez hileko kontrola egiten da, eta 2012ko lehen hiruhilekoari begira esan beharra dago gauzak aurreikusita bezala doazela.

7) Aurten bai fundazioaren etxea

Zornotzako barnetegia Aurten bai fundazioak kudeatzen du, baina etxea Jaurlaritzarena da, Maizpide barnetegikoa bezala. 1991 egin zen 30 urteko hitzarmena, 10 urtez behin berritua, eta orain esleipen-deialdi berria egitea egokitzen zen, baina 10 urtez luzatzea erabaki da. Bestalde, etxeak dagoeneko berritze-lan batzuk egitea eskatzen du, eta horren kostua,

80.000 eurokoa, bi parteen artean ordaintzea adostu dute. Halaber, erabaki da zein enpresak egingo dituen lan horiek.

8) **Norberak lekarkeena**

Maite Eubak galdetu du HABEren Plan Estrategikoaren Jarraipen Batzordea noiz eratuko den, jakin beharra daukatela beraiek ere bere plan estrategikoa egin behar baitute; HABEko zuzendaritzakoek aurki erantzun diote. Segidan, Esther Isasak testu bat irakurri du. Testu horretan HABEko Didaktika Zerbitzuko langileek beren haserrea adierazten dute HABEko zuzendariak prentsaren aurrean azken egunotan egindako adierazpenen karira, eta konponbidea jartzea eskatzen dute, baldin eta ez bazen asmoa langileen iduri negatibo hori zabaltzea; halaber, galdetzen dute adierazpen horien atzean bestelako asmorik ba ote dagoen; azkenik, Plan Estrategikoa aurrera noiz eramango den zain daudela adierazten dute, batzorde honen aurreko bileran esan baitzen aurki jarriko zela martxan. Auzmendik adierazi duenez, beroriek sekula ez dute zalantzan jarri HABEko langileen profesionaltasuna eta balioa. Beroiek esan duten bakarra, eta hala dagoela jasota Plan Estrategikoan, araudia dagoela zaharkituta eta, beste erakunde guztiak bezala, HABEk egokitu beharra daukala egoera eta erronka berrietara.

Bizkaiko Aldundiko ordezkariak adierazi du berari ere prentsak zabaldutakoak erakundearen irudi negatiboa transmititu diola, eta kontu handiz ibili beharra dagoela komunikabideekin. Urgell sailburuak eta Auzmendi sailburuordeak ere adierazi dute halakoak gerta ohi direla, zaila dela kontrolatzea gertakari horiek, espresio-askatasuna daukagunez errespetatu beharra dagoela. Iñaki Uribe berretsi egin ditu aurretik erakunde barruan emandako azalpenak, eta adierazi du berak bakarrik plan estrategikoan jasotakoa adierazi ziola kazetariari, eta ez datorrela bat prentsan agertutakoarekin; horren harira, prestatu du idatzi bat *Argia* aldizkarira bidaltzeko, eta langileei ere erantzungo die idatziz. Era berean, adierazi du langileon aldeko adierazpenak ere egin izan dituela komunikabideetan.

Plan Estrategikoaren harira, HABEko arduradunek esan dute nahiz eta jarraipen-batzorde hori oraindik eratu ez, dagoeneko pentsatzen ari dela zenbait urrats ematea, hala nola, beste erakunde publikoekiko kolaborazioa aztertzea, arlo didaktikoan teknologia berrien aldeko apustua bultzatzea eta euskaltegiek SPRIri lotzea laguntzak lortze aldera, euskaltegien protagonismoa eta ikusgarritasuna areagotzeko ebazpena aztertzea, barruko zein kanpoko komunikazioa bultzatzea, eta marko legala aldatzea (azken hori ezinezkoa izango bada ere legealdi honetan).

Bestalde, jakinarazi da udan esperientzia-pilotu bat egingo dela barnetegietan, A1 eta A2 mailak probatze aldera. Esperientzia horretan, barnetegiak arduratuko dira proba horietaz osorik. Orobat, HABEren asmoa da curriculum, bi agindutan banatuta argitaratu zena, bakar batean ateratzea A1 eta A2 mailekin osatuta.

Hurrengo bilera irail-urria aldera izatea aurreikusitako da. Horrenbestez, amaiera eman zaio bilerari.